

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 167. alea - 2012ko urria




**“Euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas”**

multiópticas UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

multiópticas Uzuri

**ZURE
ENTZUMENA
ZAITZEN**



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletelne.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi Kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte gustian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9
Tlf: 943 029 488 - 618 664 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

JL

Informatika: Treneria informatikoa
Elektronika: Osagai elektronikak

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 938 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jl@informatikaelektronika.e.telefonica.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta

Eider Zulaika

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:

Juanma Oiartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNA-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



KOLABORAZIOA: Nekane Goikoetxea, "Facebook".
05 ARTIKULUA: "San Roke dantza josten"; Markiegi gogoan.
07 ALBISTEA: Arkeologoak Praileaitz I-era itzuli dira, "Arbasoen Deia" programa...
10 BERRIKETAN GAZTEA: Kilometroak, Gaztelekuko kideei

Aro berriko XV. Euskal Jaia ospatu genuen irailaren 29an. Irudi-sorta polita jaso dugu aldizkarian. **08-09**

elkarrizketa... **11-14 ALBISTEA:** Udako denboraldi bikaina Itxaspe kanporean.
15 LABURRAK: Ibailagun, irailaren 26ko greba...
16-17 ZERBITZUAK: 18

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

BIZI OSORAKO ZIGORRIK EZ!

Herrira mugimenduak zenbait eragile sozial, politiko eta sindikalen atxikimenduekin hainbat mobilizazio burutu zituen irailaren 15ean Euskal Herriko hainbat herritan. Debako plazan 60 pertsona bildu ziren eta Lasturren ekitaldi polita antolatu zuten eskaera beraren inguruan: "Bizi osorako kartzela zigorra bertan behera utzi, eta zigor osoa bete duten 67 euskal preso politikoa askatzea".

Egoera honetan ditugu gure herriko preso hauek:

- Juan Mari Gabirondo Agote, "Txispas", 2007ko abenduaren 1ean kalean behar zuena. Parot doktrina aplikatu zioten eta harrez geroztik lau urte eta 9 hilabete pasa dira. 26 urte espetxean.

- Jokin Urain Larrañaga, "Kixkur", 2009-08-29an irten behar zuen, beraz, duela hiru urte kanpoan egon behar zuen. 27. urtea espetxean.

- Jose Mari Beristain Urbietia, "Erlete", irteera-data zehaztu gabe zuen kondena luzatu ziotenean. 24. urtea espetxean.

Jakingo duzueenez, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak uztailean emandako epaiak esaten du, Auzitegi Gorenaren 197/2006 Doktrina legez kanpokoa dela eta askatasunerako oinarritzko eskubidea urratzen duela. Estatuak ez zuela hainbat euskal presoren zigorra luzatu behar, eta Inés del Río euskal preso politikoa lehenbailehen aske utzi behar duela.

Estrasburgoko Auzitegiak bere iritzia oso argi eman badu ere, Espainiako Gobernuak ezentzunarena egiten du, eta tematuta jarraitzen du presoen eskubide oinarritzkoenak urra-



tzen, espetxeetako neurri ankerrenetako bat aplikatuz, bizi osorako zigorra, alegia.

Zertarako eutsi salbuespen neurriei?

Konponbidea beharrezkoa da, alde guztiak bakerantz bideratzea beharrezkoa da. Giza eskubideekin konpromiso zorrotza hartu eta zauri guztiak ixteko helburuarekin lan egingo dugu eta Madriletik ere horrela egin dezatela exijituko dugu.

Segi dezagun guztiok lanean denon arteko lanak uzta ematen jarrai dezan.

Lortuko dugu.

Debako Herrira Bilgunea

ARGAZKI ZAHARRA

1964KO EUSKAL JAIA



Iturria: "Herri baten garaiak. Deba" liburua.

Aurtengo Euskal Jaiak irudi polit eta koloretsuak utzi dizkigu, eta horren lekuko dugu *Berriketan* aldizkariaren urriko ale hau. Dena den, atzera begira jarrita ere, gure herrian aspaldian ospatutako Euskal Jaien irudi ederrak aurki genitzake. Ez dago zalantzarik.

Erretratu zaharrei eskainitako txoko honetan, 1964. urtean ospatutako Euskal Jaiko irudi bat egin nahi izan dugu protagonista oraingoan. Bertan, dantzariak ageri dira kiosko parean, baita haiei adi-adi begiratzeko bildu zen jende mordo ere. Ez dezagun ahaztu hitzordu historikoa izan zela 64koa, Euskal Herrian antolatutako lehenbiziko Euskal Jaia izan baitzen Deban ospatutakoa.

Argazkilaria: Allika.



NEKANE GOIKOETXEA

FACEBOOK

Nire lagun batek urtero jartzen dio bere buruari erronka bera urtezaharreko kanpaien ostean: urtero 2 lagun berri egitea. Lagun horiek ez dira lantoki, kale edo tabernetan egiten diren ezagunak. Inguruan behatu eta bere bizitzan integratuko dituen pertsonak aukeratzen ditu lagun honek. Bizitza konpartitzeko pertsonak dira eta tentuz behatzen du ingurua. Ziurtatzen dizuet zaindu egiten dituela egindako lagunak.

Harreman gogorra esan ohi diete gizarte-zientzieta-ko adituek horrelakoei. Presentzialitatea, ukitua, lotura eskatzen duten harremanak dira. Badira, ordea, harreman bigunak ere. Hauek arinak dira, aldi-baterakoak, eta kasu askotan birtualak. Gaur egungo gizartearen ezaugarria omen da azken harreman bigun hauek gure bizitzetan orain arte ez zuten lekua hartu izana.

Zein harreman dauzkate nik? Zein da gogor, zein bigun? Galdera horiek nituen buruan askotan spamera bidaltzen ditudan facebookeko mezuari erreparatu diodanean. "Hementxe azterketa egiteko lagina" pentsatu dut nire artean. Nire orriko lagun gehienak aurrez aurreko kafe bat onartzen duten harre-

manak dira: lanekoak, koadrilakoak, bidean egindako hango eta hemengoak, ikasle batzuk, familiakoak... Postan neukan mezuan, ordea, ezagun eta ezezagun askok nire lagun bigun izan nahi zuten. Eta aitortu behar dut gaizki sentiarazten nauela baieztatzeak eta ezeztatzeak edo linboan uzteak. Adina izan liteke, mesfidantza, ez dakit.

Gaztez inguratuta egiten dut lan, irakasle bezala, eta askoz ere solteago ikusten ditut, irekiago. Intimitatea beste era batera bizi dute. Badaukat, dudarik gabe, zer ikasia beraiengandik. Baina zer nahi duzue esatea... facebookeko azken mezuan ezagutzen ez ditudan lagunak nituen ate joka; baita Elkar megadenda, Andoaingo EAJ, Debako ezker abertzalea edo Zuhatza bera ere. Azken horrekin ez daukat zalan-tzarik baina, tira, ez da kontu erraza zure harreman gogorren jarraipen birtualekin nahastea.

Azkeneko mezuan Patxi Lopez ezagutzen ote nuen galdetu dit facebookek. Ez dakit hauteskunde giro honek burua biguntzen duen ala egiturazko gogorkeria den. Baina nola erantzun bai eta ez aldi berean?



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI EZ!



Abuztuaren amaieran egindako elkarretaraztea, Debako Udalak deituta. Santiagoko bidea egiten ari zen erromes batek Itziartik Debarako tartean jasandako ustezko sexu erasoak salatuz bertaratutakoek.

INDARKERIA da gure gizarteak gaur egun bizi duen arazo larrietako bat, emakumeek modu askotara jasaten duten indarkeria.

Etxean, lanean, kalean, komisaldegian pairatzen dituzten tratu txarrak, sexu erasoak, sexu jazarpena, genitalak moztea, emakumeen eta neska gazteen trafikoa, sexu esplotazioa, eta abar dira indarkeria horren erakusle.

Indarkeria mota horiek emakumeen duintasunaren kontrako eraso zuzena dute oinarrian, eta horren ondorioz, giza-eskubideak modu larri eta jasanenezinean bortxatzea kasu horietan guztietan.

Eraso hauen guztien aurrean, zera adierazi nahi dugu:

Araozari konponbidea aurkitu nahi badiogu, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna oztopatzen duten estereotipoak gainditzeko lan egin behar dugu.

Emakumeen kontrako indarkeriak ez du bizi-tza bakarrik suntsitzen, emakumeek eguneroko bizi-tzan parte hartzeko orduan ere, gauzak mugatu egiten ditu, eta horrek baldintzatu egiten du emakumea herritar oso izatea.

Lehen mailako arazo sozial baten aurrean gaude: emakume eta gizonezko guztiongan du eragina, eta ezin kalkula daitezkeen ondorio pertsonalak, sozialak eta ekonomikoak eragiten ditu.

Azken urteotan, aurrerapausoak esanguratsuak izan dira gizartearen kontzientziazioari eta indarkeria horren kontrako erantzunari dagokienez. Munduko nazio askotan, nazioartean, hainbat esparrutan neurriak hartzen ari dira. Gure Erkidegoan urteak dira lanean ari garela hainbat esku-hartze eremutan, hala nola: ikerketan, sentsibilizazioan, prebentzioan, prestakuntzan eta biktimen harreraren eta babesaren alorrean.

Hori dena, hainbat planen eremuan gauzatu da; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan

emakumeentzako ekintza positiboak bultzatzeko plan-gintzen bidez; esan behar da, etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko foru aldundietako eta udal-tako berdintasunaren aldeko planak ezinbestekoak direla. Egia da alor honetan garrantzizkoak izan direla gauzatu diren jardunak; baina, hala ere, oraindik ere asko da egiteko dagoena.

Herritarrengandik gertuen dagoen administrazio publikoa Udala denez, funtsezko lan-esparrua da prebentzioaren alorrean eta emakumeen kontrako indarkeria sustraitik ateratzeko orduan, indarkeria horren biktimei arreta ematerakoan. Horregatik guztia-gatik, ezinbestekotzat jotzen dugu: alor horretara zuzendutako Udal politikak garatzea; herri mailan ekimenak eta esperientziak trukatzeko mesedegarri izango diren foroak sortzea eta talde-ekimenak sustatzea.

Eraso horien biktimak direnei, nahiz zuzenak nahiz zeharkakoak, gure elkartasuna adierazi nahi diegu; era berean, gure esku ditugun baliabideak modu ahalik eta eraginkorrean erabiltzeko borondate sendoa dugu.

DEI EGITEN DIEGU emakumei, eta bereziki, gizonezkoek, biktimekin bat egin eta biktimak babes ditzaten eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarrera aktiboa har dezaten. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean amore ez emateko; ez gelditzeko isilik; eguneroko bizimoduan, belaunaldi gazteei, biolentziarik ezaren balioa erakusteko; emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunari errespetua izateko. Dei egiten diegu jendeari, indarkeriaren aurrean neurriak hartzeko eta horren kontra egiteko antolatzen diren ekimen publikoetan parte hartzera.

Indarkeria betiko desagerrarazteko eta gure eskumenen esparruan, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko konpromisoa eta neurriak hartu beharko ditugu.

Puri Gomez eta Marian Larrañaga

SAN ROKE DANTZA JOSTEN

Abuztuak 16, San Roke eguna. Debarrentzat egun garrantzitsua: santua maldan gora eramaten dutenentzat, prozesioan santuaren atzetik doanarentzat, familia giroan mahaiaren inguruan elkartzen direnentzat, dantzariak hankak astin dezaten txistua jotzen dutenentzat, San Rokeko ermita albaraka usainez betetzen duenarentzat, mezetara santuari gaixoren bat senda dezan eskatzera doanarentzat, erraldioen konpartsa-koentzat eta baita San Roke dantza dantzatzan duten dantzari-entzat ere.

Aurten, baina, 2012ko Abuztuaren 16a egun oso garrantzitsua izan da emakumeentzat eta batez ere Gure-Kai dantza taldea osatu duten eta osatzen dugun emakumezkoentzat. San Roke ermitaren inguruan, herriaren aurrean Gure-Kai dantza taldeko San Roke dantzako mutilek kapitainen makilen "erreleboa" eman zieten taldeko neskei datorren urtean dantzako sokan parte har dezaten eta horrenbeste mendetan ohitura izan den San Roke dantzak gaur egun bizi garen XXI. mendeko traza behingoz har dezan.

Badira urte batzuk dantza honen eta ohitura honen inguruan lanean dabilela Gure-Kai dantzari taldea. Horren

lekuko dugu duela zenbait urte kaleratu genuen "San Roke dantza, Majia eta Erlijioa" DVD-a, San Roke dantzaren inguruko Kofradia eta urtero-urtero ohitura honen inguruan egiten den edozein ekitaldiren inguruko dokumentazio-bilketa, gure ondorengoek usadioa eta jai honen zentzua zein den jakin dezaten.

Orain buru belarri murgiltzeko garaia iritsi zaigu, erronka berri bati aurre egiteko, eta aldaketa berri honek lan handia dakar atzetik. Erabaki honek dakarren lanetariko bat arropen moldaketa dugu. Honetarako artxiboak harrotu ditugu eta zenbait jakitun eta dantza-talderekin kontaktuan jarri gara aldaketa hau zentzuz egiteko, oinarri sendo baten gainean finkatzeko.

Erronka honetarako Gure-Kaiek herriari laguntza eskatu nahi dio partaide izan dadin guretzat eta herriarentzat horren garrantzitsua den aurrerapauso honetan. Lan honetan ezinbesteko irudia "jostunarena" dugu, honela ba beraiei zuzentzen gatzazkie laguntza eske.

Honetarako egingo den informazio-bileraren berri laster izango duzue. Edonork hurbildu nahi izanez gero, etortzea dauka eta esku bat bota ohitura honek aurrera egin dezan!

Gure Kai Euskal Dantzari Taldea



Markiegi eta garaiko gudari guztien omenez

Aurten bete da Polentzi Markiegi 36ko gudan fusilatu zuteneko 75. urteurrena, eta data esanguratsua ez da oharkabea pasa herrian.

Uda partean lantaldea sortu zen, Debako Udala, Zuhatza Euskara Elkarte, GOAZ, Herrira eta beste zenbait kolektibo eta norbanakok osatuta. Eta elkarlanean antolatutako egitaraua eraman dute aurrera urriko lehenengo hamabostaldian, ekimen ezberdinak burutuz. Markiegiren figura eta ibilbi-

dea ardatz hartuta, garaiko eusko gudariak ere izan dira protagonista, memoria historikoa lantzeko parada eskaini baitugu hamabostaldi honek.

Hilaren 1ean, GOAZ Antzerki Taldearen olerkiekin argazki erakusketa inauguratu zen Agirre Jauregian. Eta astea aurrera zihoala, Iñaki Egaña historialari ezagunaren bisita izan genuen. "Belaunaldiz belaunaldi, Gerra Zibiletik Frankismora. Florencio Markiegi gogoran" izenburuko hitzaldia eskaini zuen

Egañak, Agirre Jauregiko Ispiluen gela lepo beteta zegoela.

Egitarauaren baitan, beste makina bat ekimen ere burutu ziren (murala, meza, hitzaldiak, ekimen instituzionala, eskulturaren inaugurazioa...). Lerro hauek idazterakoan, dena den, hamabostaldia ez zegoen amaituta; eta, beraz, azaroko *Berriketan* aldizkarian izango duzue horren berri. Bestetik, lantaldeak aldizkari berezi bat ere kaleratuko du urtemuga honen harira.





EUSKAL JAIA 2012

650!!! Bai, aurten ere marka hautsi dugu!
 Pilotalekua txiki gelditu zitzaigun, 650
 lagunetik gora bildu baikinen aro berriko
 XV. Euskal Jaiko herri bazkarian.
 Kalabazaren pisuaren inguruko desafioa,
 marmitako lehiaketa arrakastatsua (17 koa-
 drila lehian!), kantzak, txosna, erromeria...
 hau gozamina!! Guztion artean jai euskal-
 dun eta herrikoia egin dugu. Eskerririk asko
 parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez,
 antolaketa lanetan aritu zaretenoi!





Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoek indusketei berrekin diete Praileaitz I haitzuloan

2000tik 2009ra hainbat indusketa-kanpaina egin ziren Praileaitz I haitzuloan eta Epipaleolito eta Paleolito garaietako aurkikuntza garrantzitsuak egin zituzten bertan. Baina, gure antzinako historia josteko ahaleginean, datu berriak aurkitzeko asmotan itzuli berri dira arkeologoak aztarnategira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena pasa den ekainean lortu ondoren, hain zuzen ere, 2009ko urtarriletik etenda egon diren indusketa lanei berrekin diete Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoek Praileaitz I-en. Helburua aurreko interbentzioetan erantzunik gabe gelditu diren puntuak aztertu eta, besteak beste, Solutrense eta Gravetiense garaioko mailek duten garrantzia zehaztea da.

Kobazuloaren indusketa-lanetan ari den taldeko burua Xabier Peñalver da, eta harekin batera beste hiru arkeologo aritu dira iraileko lehen hamabostaldian Praileaitzen. Kobaren sarreran, itxita dagoen galeria estu batean eta bigarren gela batean aritu dira lanean.

Indusketa-lanek bigarren fase bat izango dute, azaroko lehen hamabostaldian. Eta, ondoren, aurkitutako aztarnak laborategian ikertu beharko dituzte.



Aranzadi

Arkeologoek lortutako emaitzen jarraipena egiteko asmoa du **Berriketan** aldizkariak. Beraz, ahal bezain pronto emango dizuegu horren berri!

“Arbasoen Deia”: hitzordu berriak

Ikasturte berri honetan ere “Arbasoen Deia” bisita-programaz gozatzeko aukera izango da. Debegesa Garapen Agentzia eta Debanatura elkartearen ekimenez, programa horren helburua eskualdeko herritarrei zein bisitariari Debarreneko historia eta kultur ondarea ezagutzera ematea da, eskualdearen iraganean eta tradizioetan sakonduz.

Urriaren 21ean, adibidez, **Dolmenen Ibilbidea** egiteko aukera eskainiko da. Bisitariak artzain-kulturaren aztarnak ezagutuko ditu ibilbide horretan barrena, Karakate-Irukurutzeta mendilerroan. Trikuharri eta tumulu multzo baliotsua ikusteaz gainera, bertako produktuak dastatzeko aukera eskainiko zaie parte-hartzaileei. Txango hori bera azaroaren 11n eta 25ean ere egingo da. Irteera-ordua 10:00etan izango da, Karakateko aparkalekutik, eta ibilbideak lau bat orduko iraupena izango du.

Bestetik, urriaren 28an eta azaroaren 4an **Burdinolen Ibilbidea** egingo da, gida-interpretate baten azalpenek lagunduta. Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimoi bailarara abia-



tuko dira bisitariak eta bertan ibilbide labur eta erraza egingo dute burdinola, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituz. Bailara hori ezagutu ostean, Mendarotik Elgoibarrera abiatuko dira trenez, Makina Erremintaren Museoa ezagutzeko.

Erreserbak aldeztetik aurretik egitea komeni da, 943 19 11 72/ 695 78 36 56 telefonoetara deituz edo debanatura@hotmail.com helbidera idatziz. Baita Debako eta Mutrikuko turismo bulegoetan ere. Informazioa: www.debarrenaturismo.com.

Flyschari buruzko bi liburu berri aurkeztu dituzte

EHUko geologo talde batek Deba-Zumaiaiko flyschari buruzko bi liburu aurkeztu zituen ikasturte hasieran. “*El flysch del litoral Deba-Zumaia. Una ventana a los secretos de nuestro pasado*” eta “*Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia*” dira bi liburuen izenburuak, eta biak ala biak doan eskura daitezke internet bidez, EHUren argitalpen-zerbitzuan.

Juan Ignacio Baceta, Xabier Orue-Etxebarria, Estibaliz Apellaniz, Martin Rubio eta Gilen Bernaola dira bi liburuen egileak. Bi hamarkadatan jardun dute flyscharen ikerkuntza geologikoa egiten, eta haren emaitza bi liburutan argitaratu dute. Liburuek hasiberrientzako zein adituentzako informazio erabilgarria dute.

Egileek zera nabarmendu zuten Donostian egindako aurkezpenean: “Especie ugariaren desagertzea, klima alda-

keta handiak, baita meteoritoen talkak ere. Horiek guztiak duela 50 eta 100 milioi urte inguru gertatu ziren, Behe Kretazeoaren eta Eozenoaren arteko garaian. Hain justu, garai berean eratu zen Deba-Zumaiaiko flyscha, gure ondare geologikoaren altxorra, Lurraren iraganera benetako zirrikitua zabaltzen diguna”.

Argitalpen horien bidez, Gipuzkoako kostaldeko inguru horretako aztarnak doan ezagutu ditzakegu; izan ere, bi lanak UPV/EHUren webgunetik batere ordaindu gabe jaitzi daitezke.



BERRIKETAN GAZTEA

2012ko urria
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

KILOMETROAK

Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jaia da. Urtero ospatzen da 1997az geroztik. Milaka eta milaka euskaltzale biltzen dira urriko lehen igandean antolatzaileek prestatutako ibilbidea egin eta Gipuzkoako ikastolei bultzada emateko asmoz.

Josu Erguini asko zor dio Kilometroak jaiak, haren ideia izan baitzen, 1977an, Kilometroak jaiak sortzea. Beasaingo Alkartasuna Lizeoko guraso batzordeko kidea zen garai hartan Josu Erguin, eta hainbat urte lehenago AEBn ikusitako jai eredu batetik sortu zitzaion ideia.

Lehen aldiz Beasainen egin ziren Kilometroak eta 1986an Deban, Itziarren. Debako jendeak dioenez, arazoak egon ziren kotxeak eta autobusak aparkatzeko orduan, eta horrez gain pertsona bat motorrean zihoala hil egin zen. Orduko hedabideek ziotenez, jende askok parte hartu zuen Itziarren, ia 100.000 pertsona bildu baitziren bertan.

Aurten Andoainen ospatu dira Kilometroak, pasa den urriaren 7an. Bertan umeentzako eta gazteentzako jolasak eta kontzertuak egon dira.



Gazteentzat kontzertu hauek izan dira: Ohian Vega, Ze Esatek!, Lauroba eta Ingo al deu? Umeentzat, berriz: kirol lehiaketak, buruhandiak, haur jolasak...



Oraingo honetan, Gaztelekuko hezitzaileekin egon gara. Hiart Lete, Markel Portu eta Uxue Pascualekin hitz egin dugu, Gaztelekuaren ibilbideari buruz.

“Oso gustura gaude Debako Gaztelekuan, bertako gazteak onenak direlako”



Zer da gazteleku bat?

12-16 urte bitarteko gazteek beraien aisialdia igarotzeko espazioa da.

Duela zenbat urte ireki zen Gaztelekua?

2003ko otsailean.

Gazte asko joaten dira?

12-16 urte bitarteko gazte gehienak gerturatzen dira.

Zergatik?

12 urtetik aurrera ohitura bihurtzen delako eta ondo pasatzen dutelako.

Gustura al zabilzate?

Oso. Hezitzaileok rol pribilegiatua dugu. Gazteengandik oso gertu gaude; ez gara lagunak, baina ezta autoritatea ere.

Zer proiektu burutu dituzue?

Koadrilekin lan egiten dugu. Beraien motibazio eta beharretan oinarrituz, gazteekin batera antolatzen ditugu ekintzak. Bukaerako ekintzak baino garrantzitsuagoa deritzogu ibilbideari.

Zer berri dituzue ikasturte honetarako?

Bada, Udalak Gaztelekua Osiora aldatuko duela.

Bizilagunekin arazoak izan al dituzue?

Lokala baldintza egokietan egon ez denez, zarata arazoak eduki ditugu. Gazte eta hezitzaileon izenean barkamena eskatu nahi diegu bizilagunei.

Zaila da hainbeste gazterekin?

Politikariekin gehiago; gure herriko gazteak "la letxe" dira... eta gora Debako gaztiak!



INKESTA

UDAKO OPORRALDIA

Ikasleei udako oporretan zer egin duten eta oporrak non pasatu dituzten galdetu diegu. Harek dira eurek emandako erantzunak:

- 1.- Zer moduz pasa duzu uda?
- 2.- Nora joan zara oporretara?
- 3.- Festetan ondo ibili al zara? Zergatik?
- 4.- Diru asko eman al dizute? Zenbat?
- 5.- Noiz arte geratu zara kalean?
- 6.- Eskolara etortzeak asko eragin al dizu? Zergatik?



Kimetz Alberdi:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Jacara joan naiz oporretan.
- 3.- Bai, barraketan oso ondo pasatzen genuen.
- 4.- Bastante, 40 euro egunean.
- 5.- Laurak edo bostak arte, gutxi gorabehera.
- 6.- Bai, kaka bat delako.



Asier Torres:

- 1.- Ondo, hau izan da udarik onena.
- 2.- Benidormera, familiarekin.
- 3.- Bai, oso ondo, asko gustatu zaizkidalako.
- 4.- Bai, eta gainera aurreztuta ere banuen.
- 5.- Hiru eta erdiak arte gutxi gorabehera.
- 6.- Bai, goiz jaiki behar delako eta ez zaidalako gustatzen.



Irati Albizu:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bartzelonara joan naiz, familiarekin.
- 3.- Bai, asko gustatu zaizkidalako.
- 4.- Bai, zazpi euro egunean.
- 5.- Hamabiak arte.
- 6.- Bastante, ez zaidalako ikastea gustatzen.



Andoni Garcia:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Huelvara joan naiz, familiarekin.
- 3.- Bai, festak direlako.
- 4.- Bai, egunean 10 edo 20 euro, gutxi gorabehera.
- 5.- Ordu bi eta erdiak arte.
- 6.- Bai, eskola ez zaidalako batere gustatzen.



Miren Aizpurua:

- 1.- Ondo.
- 2.- Irlandara ingelesa ikastera.
- 3.- Bai, dibertigarria iruditu zaidalako.
- 4.- Bai, 70 euro festa guztietarako.
- 5.- Hirurak arte.
- 6.- Bastante, ez zaidalako eskola gustatzen.



Jon Zabala:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Madrilera joan naiz, familiarekin.
- 3.- Oso gustura, festak direlako.
- 4.- Hogei euro egunean.
- 5.- Gaupasa egin dut.
- 6.- Bai, nahiago dudalako oporretan egon.



Ane Larrañaga:

- 1.- Ondo.
- 2.- Irlandara joan naiz, ingelesa ikastera.
- 3.- Bai, festak direlako.
- 4.- Bastante.
- 5.- Gaupasa egin dut.
- 6.- Bai, ez zaidalako ikastea gustatzen.



Mikel Elorza:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Gironara joan naiz familiarekin.
- 3.- Bai, oso ondo, kontzertu onak zeudelako.
- 4.- Hogei euro inguru egunean.
- 5.- Hirurak aldera.
- 6.- Bai, goiz jaiki behar delako.

DenBora-pasak

TXISTEAK

* **GIZON** bat medikuarengana joan zen eta zera esan zion:

-Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez dute usainik.

-Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!

-PPPPRRRRRRRRRR!

-Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.

-Ipurdian?

-Ez, gizona, sudurrean!

* **ZER** ari zara egiten boligrafo BIC bat leihotik botatzen baduzu?

-Aerobic-a!



LAGUNTZAILEAK:



Debako Udala

BABESLEAK:



PRENTSA-TALETTA 2012-2013

Naia Orbegozo
Maria Aizpurua
Jon Yarza
Iratz Fernandez
Imanol Sobrado
Jon Albizu

Aitor Gonzalez
Alex Treku
Ane Garcia
Nora Mandiola
Iker Leiro
Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Alberto Agirreazaldeg

Udako denboraldi bikaina Itxaspe kanpinean

Oso ona izan da aurtengo udako eguraldia, eta hori argi antzeman da Itxaspe kanpinean. Jon eta Egoitz Agirreazaldegi aita-emeak pozik daude azken hileotako balantzearekin, sasoi edo denboraldi altuan jende askok hartu baitu ostatu euren kanpinean.

Itxaspen 500 bat lagunentzako tokia dago gaur egun; kanpina, bungalowak eta apartamentuak eskaintzen ditu aukeran, eta baita bezeroentzako ekintza ezberdinak ere. Horren guztiaren berri eman digute Agirreazaldegitarrek.



Jon eta Egoitz Agirreazaldegi aita-emeak.

Jon Agirreazaldegi eta Ana Luisa Zubizarreta senar-emazteak, eta haien seme Egoitzek eta Gorkak dute Itxaspe kanpinaren ardura. Itxaspen bertan bizi dira, sorterrria Eibar badute ere. "Negozio familiarra da berez, eta azken urteotan batez ere semeak dabilta arduradun nagusi", kontatu digu aitak. 1988. urteaz geroztik daude bertan eta, datorren urtean, 25 urte beteko dituzte ibilbide horretan.

Negozio familiarra den arren, kanpinean 14-16 bat lagun aritu dira lanean aurtengo denboraldi altuan, uda partean. Kanpineko taberna ere "familia barruan geratzen da", baina beste bazkide batek kudeatzen du (aurten, besteak beste, kontzertuak ere egin dira bertan, eta datorren urtean musika-emanaldi gehiago antolatzeke asmoa dute).

"Azkenean oso eguraldi ona izan dugu, eta horrek asko laguntzen du. Krisia ere sumatu dugu, baina krisia egon arren, jendeak irten egin nahi du, eta eguraldi ona dagoen bitartean, ba ondo joaten da kanpineko denboraldia", adierazi du Egoitzek. Maiatzean eta ekainean eguraldi nahiko traketsa izan bagenuen ere, uztaila eta abuztua hobeak izan dira. "Iaz kontrakoa gertatu zitzaigun -gogoratzen du Jonek-. Denboraldi-aurrea oso ona izan zen, baina uztailean, adibidez, 31 egunetik 25 edo 26 eurirekin pasa genituen eta oso txarra izan zen guretzat. Horrekin alderatuta, ba aurten bai, ondo joan zaigu".

Naturarekin kontaktuan, itsasoaren eta labarren ikuspegi bikainak eskaintzen dituen Itxaspeko kanpina jende askok aukeratu du opor-leku gisa. Bisitarien artean, familiak eta bikoteak izan dira gehienak, baina azkenaldian taldeka egindako erreserbak ere areagotu egin direla kontatu digute arduradunek. Izan ere, kanpinean ostatu hartu eta ekintza ezberdinetan taldeka parte hartzen duten lagunak ere gero eta gehiago omen dira.

Bi ekintza mota ezberdin eskaintzen zaizkie bisitariak: batetik, zerrenda batean ematen diete inguruetako herri eta hiriburuak egin daitezkeen jardueren berri (zer ikusi edo egin daitezkeen azalduz, irteera edo jarduera horiek lotzeko zenbait enpresaren kontaktuekin eta abar). Eta, bestetik, kanpinetik bertatik antolatzen diren ekintzak ere badira, hala nola haurrentzako zirkua kanpinean bertan, edota Itxaspen hasi eta bertan amaitzen diren trekking irteera arrakastatsuak. "Elkarlana egin dugu Yako Surf Eskolarekin ere. Adibidez, kanpinean dauden familietako seme-alabak youth surfa egitera jaitsi dira udan Debara. Haurrak pozik egonez gero, gurasoak ere gustura gelditzen dira eta, ekintzetan ondo pasa dutela esanez, kanpinera itzuli eta errepikatzekeotan gelditu dira asko eta asko", dio Egoitzek.

Kanpineko turista atzerritarren artean, holandarrak, alemanak, frantsesak eta belgikarrak nagusitu dira aurten. Baina Euskal Herriko, Kataluniako nahiz Estatu espainoleko bestelako bisitaririk ere ez da falta izan. Guztira 500 lagunentzako tokia eskaintzen du kanpinak, eta kopurua ez da nolana hikoia. Kanpinlari horiek Debara jaitsi ohi dira herriko parajeetara edota eguneroko erosketak egitera, eta hori oso mesedegarria da herriko merkataritzari bultzada emateko ere. Baina, alde horre-

tatik, Itxaspe eta Deba lotzen dituen garraio publikoaren eskaintza murrizta "oztopo" ere badela aipatzen dute kanpineko arduradunek. Izan ere, Debara jaisteko autoa behar izaten da, baina herrian aparkatzeko zailtasunak nabarmenak izaten dira uda partean. Eta, hori hala, azkenean Zumaiara edo beste nonbaitera joateko hautua egiten dute askok.

Bien bitartean, udako denboraldia amaitu duten honetan, Itxaspeko instalazioak txukun mantentzeko eta berritzeko asmoarekin lanean segituko dute kanpinean. "Iaz hasi ginen lanekin, eta obrekin jarraitzen dugu: harrera eraldatu genuen, aurtun egurrezko 10 bungalow jarri ditugu, komunak berritu dira, instalazio elektrikoak ere bai... etengabe ari gara gauzak berritu nahian, baina noski, dirua behar da nahi den guztia egiteko".

Itxaspe kanpina. Erreserbak eta informazioa:
www.campingitxaspe.com/ 943 19 93 77.



Kanpinaren aireko ikuspegia.



Aurtun jarritako bungalow berri bat.



Kanpineko bisitariak, Yako Eskolarekin elkarlanean antolatutako surf ikastaroan.

Deba ibaia, pixka bat garbiago!

120 boluntariok hartu dute parte Ibai lagun izeneko egitasmoan



Aurten bigarren aldiz antolatu du Deban ibaiaren garbiketa Debegesa Garapen Agentziak, Debako Udalaren, Uraren Euskal Agentziaren eta herriko hainbat elkarteren laguntzarekin (Debanatura, Amaiak Bat Futbol Taldea, Yako Surf Eskola, Kukulak, Deba-Itziar Xtream Triatloi Taldea, Zubi Guraso Elkarte eta La Lubina Elkarte).

Ekimena irailaren 15ean burutu zen. Guztira 120 boluntariok hartu zuten parte, haur eta helduak, iazko datua aise gaindituz (iaz 30 lagunek hartu baitzuten parte) eta 5 edukiontzi bete zituzten goraino: plastikoak, gurpilak, botilak, arropa, oinetakoak, pilak, irrati bat, kotxeko batera bat...

Goizeko 11:00etan egin zuten hitzordua boluntarioek. 100 bat lagun, haur eta heldu, hurbildu ziren Anes Arrinda Pasealekura. Debegesako Garapen Jasangarrirako Saileko teknikari Aitziber Cortazarren azalpenak entzun ostean, eskularruak eta zabor poltsak banatu eta Casa Campo ingurura gerturatu ziren boluntarioak.

Han taldeka aritu ziren ordubetez zaborra jasotzen, itsasbehera aprobetxatuz. Lana amaitutakoan, 13:00ak aldera, Anes Arrinda pasealekura itzuli ziren berriz eta La Lubina Elkarteko lagunek prestatutako luntxa dastatzeko aukera izan zuten, indarrak berreskuratzeko.

Ordu horretan iritsi ziren bigarren txandako boluntarioak. 17:00ak arte, gutxi gorabehera, 20 bat boluntario ibili ziren ibaia barrutik garbitzen, piragua, pedalo, stand paddle eta txalupen laguntzarekin. Hauei ere, arratsaldeko lana amaitutakoan, merezitako luntxa eskaini zitzaion.

Ibaia garbitzeko saio hauek Ibai Lagun egitasmoaren baitan kokatzen dira eta, auzolan hauen bidez, ibaia kutsatzen duten hondakinen inguruko sentsibilizazioa egin eta ingurumena zaintzearen garrantzia ohartarazi nahi du Debegesak.

Debegesa garapen agentziak eskerrak eman nahi dizkie parte-hartzaile guztiei.

Debegesa

Beste urtebetez, Udalak hondartzen ingurumeneko ISO 14001 ziurtagiria berri du irailean

Debako Udalak 2003an lortu zuen lehenbizikoz ISO 14001 arauaren ziurtagiria bere bi hondartzetarako (Santiago eta Lapari). Arau horrek enpresa edo erakunde batek, bere borondatez, Ingurumena kudeatzeko sistema (IKS) bat ezartzeko jarraitu behar ditueneko ildoak zehazten ditu. Eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat erakunde baten ingurumen-jarduera planifikatu, gauzatu, berraztertu eta hobetzeko ziklo jarraitu bat da.

Hondartzako IKSren ondorio garrantzitsuenak hauek dira: indarrean dagoen ingurumen-legeria betetzea, baliabide naturalak aurrezteak (lehengaiak, energia eta ura), hondartzen lan egiten dutenak inplikatzeko, arriskuak gutxitzea, eta udalerrriaren irudia bultzatzea (nazioartean aintzat hartzea).

Denboraldi bakoitzean ingurumen-programa bat jarri da abian, inpaktua sorrarazten duten aspektuak murrizteko helburuarekin. Urte bukaeran hondartzako aspektuak neurtzen

dira, ezarritako helburuak lortzen diren ala ez jakiteko. Eta iazko denboraldiak nahiko emaitza onak eman zituen. Besteak beste, erabiltzaileok hondartzara joan ginen bakoitzean iaz 11 litro ur kontsumitu baldin bagenituen, aurten 9,28 litro kontsumitu ditugu.

Hondartza herrian daukagun ondareetako bat da, eta guztioi dagokiguna era egoki batean erabili eta zaintzea, ditugun baliabideak ondo kudeatuz. Aurten, Udalak panelen bidez jarritako informazioa ezin izan die herritarrei helarazi, panelak zuri-tu egin dituztelako eta bertan zetozen informazioa ezabatu. Hala ere, datorren urterako panel berriak jarriko ditugu, guztion artean zainduko ditugulakoan. Bestalde, amaitu den denboraldi honek eman dituen emaitzak (kexak, desadostasunak...) ere aztertuko ditugu, hurrengo urteko programa eratzeko.

Ingurumen, Turismo eta Geoparkea Saila (Debako Udala)

Esteban Oroz eibartarrak irabazi zuen Debako Margo Lehiaketa



Urtero bezala, Debako Udaleko Kultura Sailak antolatutako, Debako Margo Lehiaketa egin zen irailaren 8an. 25 margolarik hartu zuten parte, eta maila handiko lanak aurkeztu zituzten. Parte hartzaileetatik zazpi debarrak izan ziren, eta hiru 21 urtez beherakoak.

Sari banaketa Agirre Jauregian egin zen eta Ana Salegi, Juan Luis Baroja Collet, Jose Agustin Larrañaga, Dioni Murua, Javier Cárdenas eta Maite Iriondok osatutako epaimahaiak honako erabakia hartu zuten: 1. saria: Esteban Oroz (Eibar); 2. saria: Carlos Aresti (Bilbo); 3. saria: Jokin Telleria (Beasain).

Saritu gabeko herriko lehen sailkatua: Isidor Lamariano.

Diego Sagredo Fundazioak eskainitako sari bereziak:

4. saria: Koldo Gojenola (Gasteiz); "M^a Esperanza Chávarri Saria", saritu gabeko akuarelarik onena-

ri: Jon Idigoras (Ermua); "Marqués de Prado Ameno Saria", 21 urte baino gutxiago dituztenei zuzendua, saritu gabeko lanik onena: Sara Ramos (Donostia); eta, "Blanca Vilallonga Saria", itsasoa gaitzat hartu eta lehendik saritu gabeko lanik onenari: Clemente Corredera (Ermua).

Sariketara aurkeztutako lan guztiak ikusgai egon dira Agirre Jauregiko erakusketa-gelan, eta 250 ikusle pasatu dira bertatik.

Udalaren izenean mila esker parte hartu duzuen margolari guztioi, epaimahaikideei, Haitz-Haundi margolari taldeari, La Lubinako sukaldariei, gaztelekuko gaztetxoei eta, noski, Diego Sagredo Fundazioari. Datorren urtera arte!

Marifran Agirregabiria, Debako Udaleko Kultura Batzordeko lehendakaria

Euskadiko Hiru-Txirlo bolo txapelketa

Irailaren 22an abiatu zen Euskadiko XXIII. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketa. Iruzubietan (Bolibar), Ezoizian (Soraluze) eta Barinagan (Markina) jokatu dira lehenbiziko hiru saioak, eta txapelketako azken jaurtialdia Eibarko Asola Berrin izango da, urriaren 20an -ordezko bolatokia San Migel izango da-. Izen-ematea bost euroan egin ahal izango da eta sari ezberdinak daude jokoan. Txapelketako saioak 17:00etan hasiko dira.

Igon Mantzizidor, nagusi Akuako Biran

Eguraldi eguzkitsua lagun, 150 lagun bildu ziren irailaren 16an Zestoako Akua auzoan, VII. Akuako Biran parte hartzeko gogoz. Korrikalariek 7.800 metroko ibilbide gorabeheratsuari egin behar izan zioten aurre, Akuako ermitatik hasi eta bailara osoa zeharkatuz, auzoko baserri guztietatik pasata. Igon Mantzizidor debarra eta Nerea Amilibia aiarra izan ziren aurtengo irabazleak. Mantzizidorrek 29 minutu eta 48 segundoan jarri zuen marka. Zorionak!!

Arakistain anai-arrebak, bikain Hernanin

Krikistiña dantza taldeak antolatutako Gazteen Trikitixa Txapelketa izan zen irailaren 16an Hernanin, eta Lasturko Josune Arakistain eta Ander Arakistainek irabazi zuten lehiaketa. 124 puntu lortu zituen bikoteak, eta txapela eta garaikurra eskuratu.

Bestetik, irailaren 30ean Zumaiaiko Artadin Trikitilari Gazteen XIV. Txapelketa izan zen, eta bertan ere maila bikaina erakutsi zuen Josunek. Izan ere, berak eta Alaitz Escudero debarrak osatutako bikoteak saio polita eskaini baitzuen. Zorionak, beraz!!



Grebak jarraipen zabala izan zuen herrian



ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, Hiru, CGT-LKN eta CNT sindikatuek eta ehundik gora gizarte eragilek greba eguna deitu zuten irailaren 26rako Hego Euskal Herrian, Espainiako Gobernuak ezarri berri dituen murrizketak salatzeko. Deban, goiz partean, elkarretaratzea eta manifestazioa izan ziren, "Euskal Herrian murrizketarik ez!" lelopean, eta ondoren kotxetan antolatutako ziren herritarrek Donostiara, eguerdiko mobilizaziora, joateko. Arratsaldean ere asanblada eta manifestazioa burutu ziren herrian.



Agenda

Urriak 20, larunbata

-12:00. Nesken Binakako Pala Txapelketako finala, Aldats pilotalekuan.

-19:30. Kale Antzerkia. "Les Tambours de feu" antzezlanaren eskainiko du Deabru Beltzak konpainiak.

Urriak 21, igandea

-Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak.

Urriak 25, osteguna

-Euskadiren Eguna. Gernikako Estatutua sinatu zeneko 33. urteurrena.

Urriak 26, ostirala

-19:30. Azken ostirala. Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Azaroak 1, osteguna

-Itziarko Peria. Goizetik hasita, ganadu feria.

Neguko ordutegia Turismo Bulegoan

-Debako Turismo Bulegoak eta larunbatak: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00, eta igandeak: 10:00-14:00).
aurrerantzean (astelehenetik 10:00-14:00).
ostegunera: 10:00-14:00; ostiral Telefonoa: 943 19 24 52.

Ikastaroak

-Debanatura Ingurumen Heziketarako Elkartek 2012ko udazken-negurako ikastaro eta tailer berriak antolatu ditu Deban: Autokontsumorako baratza-ekologikoko jardunaldiak, sendabelarren tailer-txokoa, eta ingurumen osasuna

eta etxeko ekologiaren tailerra. Hiru ikastaro horietan izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiagorako: 943 19 11 72/695 783 656 telefono zenbakietara deitu edo debanatura@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.

Lehiaketak

-Debalai, Deba eta Itziarko merkatarien elkarteak antolatutako I. Argazki Lehiaketa.

Gaia: Deba, Itziar eta inguruak. Urriaren 27a arte aurkeztu daitezke lanak. Lehiaketa

honetan parte hartu nahi dutenek Debalai elkarteko kide diren dendetan eskura ditzakete oinarriak, baita Debako Udalaren atari digitalean ere: www.deba.net.

-Beldur Barik lehiaketa antolatu da aurten ere Deban. Neska eta mutilek emakumeen kontrako diskriminazioak ikuskarazten dituzten adierazpen artistikoak saritzea eta bultzatzea da lehiaketa honen helburua. Lehiaketa bikoitza da: batetik, Berdinsareak EAEn antolatutakoa, eta bestetik,

Deban bertan antolatutakoa. Lehiaketako oinarriak: www.beldurbarik.org edo www.deba.net atarietan.

**BELDUR
BARIK
LEHIAKETA
2012**

**BELDUR
BARIK**

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

DEBAKO BOTIKAK
ZALDUEGI: TEL. 669 262 201
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.
09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikun.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30

OHARRA:
Gabeke farmazia zerbitzua Elgoibarrera Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka . 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

Zugandik Zugana

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



BURU - ZURI

Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan traçoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



IZENA EMATEKO:

URRIAN (BERANDU IRISTEN BAZARA,
KURTZOAN ZEHAR EMAN DEZAKEZU
IZENA ETA EGINAK DAUDEN
TALDEETAN LEKU EGINGO DIZUGU)
ZUHATZA
EUSKARA ELKARTEAN.

INFORMAZIOA:

ZUHATZA EUSKARA ELKARTEA.
IFAR KALEA, 12 BEHEA
943 19 13 83 (koordinatzailea@zuhatza.com)
UDALETXEKO HARRERA



Nik maite
dud
euskara

CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA
Matrikula zabalik • Matrícula abierta
UDAL EUSKALTEGIAK

"Oraindik ere baduzu lekurik
euskaltegian! ZATOZ!"



DEBABE Udal Euskaltegia
Ifar kalea, 12
Telefonoa: 943 19 22 36
e-posta: debabe.deba@telefonica.net

2012-2013
IKASTURTEKO **EUSKARA** IKASTAROAK

Matrikula zabalik • Matrícula abierta



Aurrez aurrekoak, 2, 3 edo 4 egun astean
Autoikaskuntza internet bidez

Ikastaro bereziak
Enpresak
AISA (Etorkinak)
Merkatariak eta ostalaritza

Azterketetarako prestakuntza
Perfilak (Administrazioa, Osakidetzak, Hezkuntza, ...)
HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
EGA

16 urtetik gorakoentzat
DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK



Orduetgia:
09:00 - 11:30
18:00 - 20:30